



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 1a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/ITP-00024. Interpelazioa, zientziako talentua nazioartekotzearen eta erakartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (3. or.).
- 11-23/MOC-00058. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzea Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsi du (4. or.).
- 11-23/DEC-00038. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).
- 11-23/DEC-00039. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00173. Galdera, Nafarroako osasun plan berri bat argitaratzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (6. or.).
- 11-23/POR-00178. Galdera, entrenatu ahal izateko Iruñean bizi behar duten igerilariendako laguntzei eta dirulaguntzei buruzkoa. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (6. or.).
- 11-23/POR-00258. Galdera, A-15eko obrei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00259. Galdera, itxaron-zerrendak murrizteko abiarazi diren neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00260. Galdera, zaintzen aldeko foru itunari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00206. Galdera, Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunei buruzko mozioaren betetze-mailari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00207. Galdera, justizia errestitatiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestitatiboaren batzordeei buruzkoa. Aranzazu izurdiaga Osinaga andreak egin du (9. or.).

- 11-23/PES-00208. Galdera, unibertsitate-gradu berrien legezko eta administraziozko aitortpenari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00209. Galdera, Sadar kaleko 3.aren parean dagoen lurzatiari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00210. Galdera, SAREB enpresa kudeatzailearekin 2019. urteaz geroztik egindako kudeaketei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00211. Galdera, sozietateen gaineko zergaren kenkariei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako proposatutako bost kideak izendatzea (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (13. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/ITP-00024. Interpelazioa, zientziako talentua nazioartekotzearen eta erakartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako interpelazioa, zientziako talentua nazioartekotzearen eta erakartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Dominguesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztaba-datzeko:

Zioen azalpena.

Welcoming International Talent (WIT) programak –Nafarroako Gobernuak gidatua, NUPekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin lankidetzan– 2,6 milioi euroko aurrekontua du, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak erdi bana finantzatua. Aurrekontu horren kargura bi laguntza-deialdi egin dira: lehena 2022ko apirilean eta bigarrena 2023ko urtarrilean.

Onuradunek hiru urteko laguntza jasotzen dute ikerketa-proiektu indibidualak garatzeko, Nafarroako S4 Estrategiako ikerketa-ildo estrategikoetako hirutan. Beka horietan hainbat kontzeptu ordaintzen dira, eta, hortaz, beka bakoitzaren kostu osoa 132.000 eurokoa izatera hel daiteke.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak lehendakariak konpromisoa hartu zuen aurrerabidea egiteko prestakuntzan, ikerkuntzan eta prestakuntzan.

Horregatik guztiagatik, zientziako talentua nazioartekotzearen eta erakartzearen arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-23/MOC-00058. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzea Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistamarako duten loturarekin

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2023ko azaroaren 21ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzea Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistamarako duten loturarekin. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzendaria aurreratu eta osatu dezan Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eginez, Nafarroako Ubidea baliatuta al bait lasterren, bi entitateekin adostuta erabilerari buruzko guztia".

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/DEC-00038. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du HIESaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin; hori dela-eta, Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarrarekin eta Sare Elkartearekin batera, ekitaldi bat antolatu du Legebiltzarraren atalondoan ostiralean, abenduaren 1ean, 9:00etan.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, 41 urteko epidemiaren ondotik, beharrezkoa da prebentzio konbinatuan lan egiten jarraitzea. Diagnostiko goiztiarra eta tratamenduari goiz ekitea dira biderik onenak pertsonen osasuna babesteko eta kutsatzeak prebenitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu Berdintasuna-

ren aldeko Gizarte Itunak biltzen dituen neurriak bultzatzen jarraitzearen alde egiten du.

4. Nafarroako Parlamentuaren konpromisoa da arreta soziosanitario banakatua bermatzea GIBdun diren pertsonen, kontuan hartuz haien berezitasunak, bereziki emakumeen eta adinduen kasuan.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du GIBarekin bizi diren pertsonen diskriminazioa desagerrarazteko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere fatxada abenduaren 1ean gorritz argiztatzea".

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/DEC-00039. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak lan egingen du desgaitasuna duten pertsonen eskubideak urra ez daitezen, oinarri hartuta Giza Eskubideak eta,

zehazki, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Ituna.

3. Nafarroako Parlamentuak ekimenak sustatuko ditu desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzeko, baita haien parte-hartze soziala ere eskubide osoko herritar gisa."

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00173. Galdera, Nafarroako osasun plan berri bat argitaratzeari buruzkoa**GALDERA ERRETIRATZEA**

2023ko azaroaren 27an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Leticia San Martín Rodríguez andreak erretiratu duela Nafarroako osasun plan berri bat argitaratzeari buruzko ahozko gal-

dera, zeina 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/POR-00178. Galdera, entrenatu ahal izateko Iruñean bizi behar duten igerilariendako laguntzei eta dirulaguntzei buruzkoa**KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA**

2023ko azaroaren 27an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismoko Batzordean izapidetu dadin Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, entrenatu ahal izateko Iruñean bizi behar duten igerilariendako laguntzei

eta dirulaguntzei buruzkoa, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/POR-00258. Galdera, A-15eko obrei buruzkoa*YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, A-15eko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz aurreikusten du Nafarroako Gobernuak A-15eko obrak hastea, Corella eta Cintruénigo udalerrietatik igarotzen den zatian (5 kilometro) eta Cintruenigotik Nafarroako mugara doan zatian (13 kilometro)?

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-23/POR-00259. Galdera, itxaron-zerrendak murrizteko abiarazi diren neurriei buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, itxaron-zerrendak murrizteko abiarazi diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak osoko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri jarri dira abian itxaron-zerrendak murrizteko, eta zeintzuk izan dira neurri horien emaitzak?

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/POR-00260. Galdera, zaintzen aldeko foru itunari buruzkoa*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, zaintzen aldeko foru itunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilari Félix Taberna Monzón jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zaintzen aldeko foru itunaren esparruan, zure departamentua nola ari da gauzatzen urteko lan-programak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko konpromisoa eta gobernantza-egiturak (batzarra, koordinazio- eta lan-taldeak eta abar abian jartzea?

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-23/PES-00206. Galdera, Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunei buruzko mozioaren betetze-mailari buruzkoa*ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunei buruzko mozioaren betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako idatzizko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak honako erabaki hau onetsi zuen 2021eko martxoaren 18an:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Espainiako Gobernuari eska diezaion Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, Nafarroako lurralde-eremuan kokatutakoena.

2. Inbentario bat egin dezan, sei hilabeteko epean, Eliza katolikoak bere izendapen ezberdinetakoren baten pean eta Hipoteka Legeko 206. artikulua ezartzen duenaren babesean erregistratu dituen Nafarroan kokaturiko ondasun guztien inbentario hori Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu da, pertsona fisiko nahiz juridikoek kontsultarako eskuragarri izan dezaten, halako moldez non doako sarbide askea emanen baitu ondasun eta higiezinari buruz jabetza-erregistro ezberdinengandik jasotako ohar soiletara.

3. Iker dezan ea immatrikulatutako ondasunen zerrendan ba ote dagoen toki-entitateen herri-ondasunik; eta, hala baldin bada, erabaki beharreko egintza administratibo edo judizialak erabaki ditzan, ondasun horiek berreskuratzeko.

4. Bulego bat sor dezan, Nafarroan Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunek jabetza-erregistroan dituzten inskripzioen zerrendei eta orriei buruzko kontsultetarako eta aholkularitzarako”.

Nafarroako Gobernuak erabaki-proposameneko lehen puntua bete zuen aurreko legegintzaldian, baina betetzeke daude bigarrena, hirugarrena eta laugarrena. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut: Nafarroako Gobernuak zer egin du eta zer egingen du Nafarroako Parlamentuak onetsita-ko erabaki-proposameneko bigarren, hirugarren eta laugarren puntuetan xedatutakoa betetzeko?

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-23/PES-00207. Galdera, justizia errestituratuaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituratuaren batzordei buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu izurdiaga Osinaga andrean egindako galdera, justizia errestituratuaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituratuaren batzordei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Justizia errestituratuari, bitartekaritzari eta jardunbide errestituratu komunitarioei buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legeak, zeina martxoaren 22an sartu baitzen indarrean, zenbait betekizun ezartzen ditu legea garatzeari begira. Hala, Nafarroako Gobernuari agintzen dio urtebeteko epean honako hauek onets ditzan:

1. Nafarroako Bitartekaritza Erregistroaren sorrera eta funtzionamendu-arauak.

2. Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsona bitartekariak eta Bitartekaritza Erakundeek Kalitate Zigilua lortzeko bete beharreko baldintzak.

3. Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzen diren bitartekaritza prozesuen faseak arautzeko esparru orokorra, beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonen eta entitateen zuzendua, edo, hala badagokio, horri atxikitzeko nahia dutenei, erregistroan izena eman ez badute ere.

4. Beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonen eta entitateen zuzendutako bitartekaritzako jokabide-kodea, zeinak barne hartuko duen, beste neurri batzuen artean, kodea urratuz gero bitartekaritzako kalitate zigilua galtzeko eta Nafarroako Bitartekaritza Erregistrotik kanporatua izateko aukera.

5. Komunitateko agente errestituratu izaera lortzeko eta Nafarroako Sare Errestituratuaren parte izateko betekizunak.

Horiek onesteko, beharrezkoa da hiru lantalde sortzea eta hauspotzea Nafarroako Justizia Kontseiluaren baitan, legearen 52. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hori dela-eta, honako galdera hauek aurkezten ditugu:

– Eratu al dira Justizia Errestauratiboko Batzordea eta Jardunbide Errestauratiboetako Batzordea?

– Zer pertsonak edo entitatek osatzen dituzte batzorde horiek?

– Hasi al dira foru legea garatzeko arauak taxutzeko lanak?

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-23/PES-00208. Galdera, unibertsitate-gradu berrien legezko eta administraziozko aitorenari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, unibertsitate-gradu berrien legezko eta administraziozko aitorenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Administrazio Publikoko Zientzia Juridikoen Gradua egin duen pertsona baten kasu espezifikoaren berri izan dugu. Pertsona horrek zailtasun batzuk ditu berak eginiko gradua honako kasu hauetan gaikuntza-gradu gisa kontuan hartzeko:

- Toki Entitateetarako Idazkaritzako lehiaketa- oposizioarako sarbidea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 246 bis artikulua arabera, artikulua horrek ez baitu berriaz aurreikusten gradu hori. Nafarroako Arartekoaren txosten batek legearen interpretazio ez hain murriztailea gomendatzen badu ere, Lurralde Kohesioko kontseilariak geroago emandako ebazpen batean berriz ere adierazten da gradu-baliokidetasuna araututa dagoela eta Administrazio Publikoaren Zientzia Juridikoen Gradu espezifikoak ez dagoela horrela aurreikusita; beraz, prozesutik kanporatzea ziurtatzen da.

- Administrazio Publikoetako Zientzia Juridikoetako Gradua aitortzea Administrazio Publikoko teknikarientzako (adar juridikoa) deialdietan. Kasu horretan, deialdia bera da ezartzen duena gradu bat edo baliokidetzat jotzen den titulazioa izateko baldintza, eta, era berean, baliokidetzak tasatuta daudenez, aipatu gradua ez da halakotzat hartzen.

- Kontratazio-mahaietan parte hartzeko gaitasuna aitortzea. Horretarako, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 134. artikulua zuzenbideko lizentzia edo gradua eskatzen du.

Gure iritziz, agerikoa dirudi kasua aztertzean tratu bidegabea ematen zaiela Administrazio Publikoko Zientzia Juridikoen Gradua egiten dutenei eta, horrenbestez, balizko konponbide bat litzateke aipaturiko bi lege horiek eta Administrazio Publikoko teknikarientzat taxutzen den hurrengo deialdia aldatzea.

Baina, halaber, uste dugu, honako hau kasu partikular bat izanda ere, Nafarroan jende gehiago pairatzen ari den problematika islatzen duela, ez bakarrik Administrazio Publikoko Zientzia Juridikoetako gradua egin dutenek, ezpada Administrazioak edo gure ordenamendu juridikoak ezarritako baldintzetan aurreikusi gabe gradu sortu berri oro egiten dutenek ere.

Hori dela-eta, honako idatzizko galdera hau egiten dugu:

Departamentuaren irizpidearen arabera, posible al da konponbide integral bat ematea aitortza eman ahal izateko lehendik zeuden graduen ezagutza eta/edo gaitasunen antzerakoak eskuratzeko balio duten gradu berriei, gradu horiek egiten dituztenei eskubide berberak ziurtatze aldera? Edota, aldiz, uste duzu eraginkorragoa dela egokiak diren lege- eta administrazio-aldak

ketak egitea gertatzen diren kasuetan, ikusten bada tratu bidegabea edo baztertzaila ematen dela?

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-23/PES-00209. Galdera, Sadar kaleko 3.aren parean dagoen lurzatiari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Sadar kaleko 3.aren parean dagoen lurzatiari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Sadar kaleko 3. zenbakiaren parean dagoen lurzati Nafarroako Unibertsitate Publikoari lagatzeko edo erabilera publikoren bat emateko? Hala bada, zer epetan?

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-23/PES-00210. Galdera, SAREB enpresa kudeatzailearekin 2019. urteaz geroztik egindako kudeaketei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, SAREB enpresa kudeatzailearekin 2019. urteaz geroztik egindako kudeaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin nahi dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Zer neurri, kudeaketa eta egintza egin ditu Nafarroako Gobernuak SAREB enpresa kudeatzailearekin 2019. urteaz geroztik etxebizitzak merkatuan jartze aldera?

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-23/PES-00211. Galdera, sozietateen gaineko zergaren kenkariei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Sozietateen gaineko zergaren kenkariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

1- Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 65. artikuluan aurreikusitako kenkaria aplikatzen duten subjektu pasiboen kopurua, 2016tik 2022ra arteko ekitaldi bakoitzean.

2.- 2016tik 2022ra arteko urte bakoitzean artikuluko horren aplikazioaren bidez izandako kenkarien zenbatekoak.

3- Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 65.bis artikuluan aurreikusitako kenkaria aplikatzen duten subjektu pasiboen kopurua, 2016tik 2022ra arteko ekitaldi bakoitzean. Prentsan argitaratutako informazioa ikusita, Gipuzkoako Hondakinen Partzuegoak ematen dituen hondakinak kontrolatzeko neurririk hartu al du Nafarroako Gobernuak?

4.- 2016tik 2022ra arteko urte bakoitzean artikuluko horren aplikazioaren bidez izandako kenkarien zenbatekoak.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako proposatutako bost kideak izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Honako hauek izendatzea Euskararen Nafar Kontseiluko kide, Nafarroako Parlamentuak proposatuta:

– Juan Carlos Pikabea Zubiri jauna, titularra, eta Iñaki Iriarte López jauna, ordezkoa.

– Inmaculada Jurío Macaya andrea, titularra, eta Ainhoa Unzu Garate andrea, ordezkoa.

– Bakartxo Ruiz Jaso andrea, titularra, eta Eneka Maiz Ulaiar andrea, ordezkoa.

– Ana Luján Martínez andrea, titularra, eta María Roncesvalles Solana Arana andrea, ordezkoa.

– Ane Sánchez Jiménez andrea, titularra, eta Ainhoa Aznárez Igarza andrea, ordezkoa.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2023ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak idazki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaia-ri, azaroaren 27koa, non eskatzen baitu 2023ko abenduaren 5ean eta 7an goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan izanik aipatu egunetan ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Mahaiaren 2022ko azaroaren 21eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea; halatan, 2023ko abenduaren 5ean eta 7an lanal-

dia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuen beharrezanek horretarako bidea ematen badute.

2. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2022ko azaroaren 21eko erabakiaren bidez onetsitakoa; halatan, 2023ko abenduaren 5ean eta 7an, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Erabaki hau legelari nagusiari, Legebiltzarreko Zerbitzuen burutzei eta Langileen Batzordeari jakinaraztea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

